Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko maiatzean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko maiatzean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.807 izan da, apirilean baino 919 gehiago eta joan den urteko maiatzean baino 757 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko maiatzean 223 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 850 Gipuzkoan eta 734 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 47 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 40,6 Bizkaiakoetan eta % 12,3 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 77 hazi dira eskaintzak (97 eskaintza gehiago). Bizkaian 332 eskaintza gehiago izan dira (% 82,6ko hazkundea) eta, azkenik, Gipuzkoa da eskaintzak gehien hazi den lurraldea; 490 eskaintza gehiago (% 136,1eko igoera).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 29 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 14,9ko hazkundea, Bizkaian % 61,7 hazi dira eskaintzak (280 gehiago), eta azkenik, Gipuzkoan % 111,4koa da hazkundea (+448 eskaintza).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 22,1 zerbitzuetako profilerako erregistratu dira (411 eskaintza); eta, % 15,2 zientzietako teknikarien profilerako (274 eskaintza). Laguntzako teknikari, kualifikatu gabeko eta industria profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute;268, 262 eta 231 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 15 eta 36 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan hazi dira eskaintzak. Gehien hazi diren eskaintzak, balio absolutuetan, zerbitzuetako profilekoak izan dira (242 eskaintza gehiago, % 143,2ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, hazkunde nabarmenena lehen sektoreko eskaintzatan gertatu da (% 414,3ko igoera, 29 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak hazi dira. Hilabete arteko erlazioan bezala, gehien hazi direnak, balore absolutuetan, zerbitzuetako profilekoak izan dira (198 eskaintza gehiago, % 93ko hazkundea); balore erlatiboetan, ere, lehen sektoreko profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 300eko hazkundea, 27 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 29,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 69,7k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,8ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 534 izan dira, aurreko hilabetean baino 263 eskaintza gehiago (% 97ko igoera). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 644 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1.259 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 104,7koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko maiatzean 14 izan dira, aurreko hilean baino 12 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 399 gehiago izan dira (% 295,6ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 38,7 hazi dira; 351 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 7 gehiago erregistratu dira (% 100eko igoera).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko maiatzean erregistratutako lan-eskaintzen % 77,6k, 1.402 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 11,6k (210 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,9ko pisua dute (35 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten 7 eskaintza egon dira hil honetan (eskaintza guztien % 0,4).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (740 eskaintza gehiago, % 111,8ko hazkundea).

Urte arteko eboluzioari dagokionez ere, eskaintza guztiak hazi dira. Balio absolutuetan gehien igo direnak, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (646 eskaintza gehiago, % 85,5eko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak (4 eskaintza gehiago, % 133,3ko hazkundea).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12k zehazten du datu hori (1.807 eskaintzetatik 216). 216 eskaintza horietatik, 182k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 34ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 97 gehiago izan dira apirilarekin alderatuz, hau da, % 114,1 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 10 gehiago izan dira; hazkundea erlatiboa % 41,7koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 77 gehiago izan dira (% 73,3ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, aldiz, berdin mantendu dira (34 eskaintza).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 49 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 37 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 40 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 86,7k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.807 eskaintzetatik 240k soilik zehaztu dute.



240 eskaintza horietatik, 91k LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 76 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (50 eta 20 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, mota guztietako ikasketen eskaintzak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (33 eskaintza gehiago, % 165eko hazkundea).

2021eko maiatzarekin alderatuta ere, eskaintza mota guztiak hazi egin dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira 35 eskaintza gehiago jasota (% 85,4ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, igoera handiena batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenen multzoan eman da (% 100eko igoera, 10 eskaintza gehiago).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena jarduera administratiboen profilekoa da; honen pisua eskaintza guztien % 15,2koa izan da (275 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat merkataritza da, eskaintzen % 14,1eko pisuarekin (255 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira. Balio absolutuetan, gehien hazi diren eskaintzak, administratiboak izan dira (202 eskaintza gehiago, % 276,7ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, igoera nabarmena aisialdiko jarduerek izan dute (% 550ko hazkundea, 33 eskaintza gehiago). Beste muturrean, higiezinen arloko jarduerak eta argindar horniketakoen eskaintzak daude, hauek izan baitira murriztu diren bakarrak (6 eta eskaintza 1 gehiago, hurrenez hurren).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, administratiboak izan dira (169 eskaintza gehiago, %159,4ko hazkundea). Bilakaera txarra eduki duten bakarrak, aldiz, higiezinen arloko jarduerak izan dira; ez baita jarduera honetako eskaintzarik egon (7 gutxiago).